+ Larramendi. J. B.

St Martin d'Arberoue le 1er 10. 67

Jaun Kalonje errespetagarria.

Asko igande arratsaldetan bulta gocho bat izan da neretzat nere lumaz hain herrebeski erabili izana gatik, zombeit lerroren emaitea, demboran "Eskualduna" aspaldian "Herria" astekari hainbertze maite izan dudan astekari maite maitean: Barkatuko dautazu jaun Kalonjea, artetik nigar bat chukatzen badut begi chokoan: mende erdi huntan izan naiz irakurle, abonatu fidel, astekari maite maite hortan: artetan zombeit hitz laburren igortzale ere bai: Kontsolamendu handi bat neretzat: behinere hitz bakar bat ez zaitala idekia izan igorria izan ditudan hitz zombat nahi herrebesetarik: Milesker zendu St Pierre jaun Apheztikia, Arotzarena jaun Kalonje: bizi diren D. Soubelet, P. Lafitte jaun Kalonjeak: Herrebeskeria: erran dut! orhoitzapen bat: 1921 urthea zen. Gure soldado zerbitzuan ginen elgarrekin "Secrétaire du bureau de recrutement de

Pau-n soldado lagun, urthe berean, egun berean sorthu 27 Août 1901, aspaldian misionetan joan Aphez Jitku den Olçomendy den Baigorriar-arekin: hauche erraiten zautala, ordukotz zombeit hitz igortzen bainuen "Eskualduna" astekarirat: gazo Larramendy ez ahal duk astokeriaz guti igorri ahal behar: ez zen enganatzen... ez dut geroztik ikusi gaizoa, ez segur gaixoa bainan egiazko adichkidea: geroztik dembora joan da, urtheak ere bai: egun, bethidanik bezala Goragokoetan etsemplu hartu dut, hartzen dut: neretzat guziak hala baititazte: aitzineko asteko astekarian penarekin ikusi nuen, aste huntan igorri dautazun guthun hunkigarrian igorri dautazunean ikusi dut zure kargu eta karga handiaz desgarkatzen zarela gazte bati: egungo eguneko bereziki egitbide handia kausitzen dudana: etsemplu handi, baitezpadako horren segitzerat ekarria naizela nahi dautzut erran: erran nahi baitut: ichiltzen naizela horren gatik mentturaz noizetik noizerat

Zerbeit igortzeko gutiziarekin: ichilduz geroztik....
Zure ordaingoa hartu duen Yriart-Urruty
Jaun Aphez gazteari bihotz bihotzetik
desira hau eginez:
Bere aitzinekoen sail eder, delikatu,
eta ederra segi dezan, Etchepare Jaun
Medikuaren ahotik, arecia gure herriko aphez
etcheko salan aditu ditugun solasak bethi
balia izan diten:

Bizi dadin eskuara
Orai eta gero
Berma gaiten hortara
Eskualdunak oro:
Oraino aldi bat

Milesker, barkattu nere ausartziaz,
oraikoez, bereziki lehengoez —
Zure adichkide bizikotz, ez ~~dut~~
dut dudatzen gerokotz:

Larramendy Jean Baptiste
Zabaltza
St Martin d'Arberoue. 64. B.P